

2022ko abenduaren 5a, astelehena

230

Lunes, a 5 de diciembre de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

EIBARKO UDALA

Iragarkia

Eibarko Hirian Ibilgailuen Aparkamendu-Denbora Mugatua Arautzeko Ordenantzaren aldaketak –2022ko irailaren 26ko Udalbatzarrak onartuak – jendaurrean jartzeko epearen barruan ez denez inolako alegaziorik aurkeztu, behin betiko onartutzat jo da, eta Ordenantzaren testu osoa ematen da argitara, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko Legearen 70.2 artikulua aplikatuz.

Eibar, 2022ko azaroaren 23a.—Jon Iraola Iriondo, alkatea. (7444)

Eibarko hirian ibilgailuen aparkamendu-denbora mugatua arautzeko Ordenantzaren testu bategina. Eibarko hirian ibilgailuen aparkamendu-denbora mugatua arautzeko Ordenantza.

SARRERA

Hiri-bideen erabilera Udal Ordenantza bidez arautzeko aukera ematen du trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bidesegurtasunari buruzko Legea onartzen duen urriaren 30eko 339/1990 Legegintzako Errege-Dekretuaren 7b) artikuluak.

Herri-jabariko alde batzuetan aparkatzeko denbora mugatzea bidezkotzat ikusten da ibilgailu gehiagok aparkatu dezaten, hain urria den ondasun horren erabilera optimizatu ahal izateko.

Helburu horrekin onartu da Ordenantza hau.

1. artikulua. Ordenantzaren helburua.

Ordenantza honek ondorengo artikuluan jasotako esparru horretan ibilgailuen aparkalekua -denboraren aldetik, mugatua-erregulatzea du helburu.

2. artikulua.

Ordenantza hau, ibilgailuen aparkamenduari dagokiona, honako kale hauetan aplikatuko da:

- 1. Toribio Etxebarrian.
- 2. Isasi kalearen ezkerraldeko aldean, ibilgailuen zirkulazioaren noranzkoan (zenbaki bikoitiak), Jose Antonio Gisasolarekiko eta Makazkuarekiko elkarguneen arteko zatian.
 - 3. Errebal Plazia eraikinaren parking publikoan (-1 solairua).
- 4. Eta Udal Osoko bilkurak zehazten dituen gainerako lekuetan.
 - 3. artikulua. Aparkaldi mugatuaren ordutegiak eta egunak.
 - 1. Aparkaldi mugatua Toribio Etxebarria kalean:

Lanegunetan izango da aparkaldi mugatua, astelehenetik ostiralera. Ordutegia: 7:45-12:00. 12:00etik hurrengo eguneko goizeko 7:45ak arte oinezkoentzat izango da kale osoa. Beraz, ordu-tarte horretan ez da ibilgailurik egongo eta debekatuta egongo da aparkatzea (12:00-7:45).

AYUNTAMIENTO DE EIBAR

Anuncio

No habiéndose presentado alegación alguna dentro del plazo de exposición pública de las modificaciones acordadas por Pleno de 26 de septiembre de 2022 a la Ordenanza Reguladora del aparcamiento limitado en el tiempo de vehículos en la Ciudad de Eibar; se consideran definitivamente aprobadas y se hace público el texto íntegro de la ordenanza en aplicación del artículo 70.2 de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Eibar, a 23 de noviembre de 2022.—El alcalde, Jon Iraola Iriondo. (7444)

Texto refundido de la Ordenanza reguladora del aparcamiento limitado en el tiempo en la ciudad de Eibar. Ordenanza reguladora del aparcamiento limitado en el tiempo de vehículos en la ciudad de Eibar.

INTRODUCCIÓN

Deparada por el artículo 7b) del Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de vehículos a motor y Seguridad Vial, la posibilidad de regular mediante Ordenanza Municipal el uso de las vías urbanas.

Se considera oportuno limitar el tiempo de los estacionamientos en algunas zonas de dominio público al fin de lograr una rotación de vehículos que permita optimizar el uso de este bien escaso.

A tal objeto se aprueba la presente Ordenanza.

Artículo 1.º Objeto de la Ordenanza.

La presente Ordenanza tiene por objeto regular el aparcamiento, limitado en el tiempo, de vehículos en el ámbito recogido en el artículo siguiente.

Artículo 2.º

La presente Ordenanza se aplicará al aparcamiento de vehículos en las calles:

- 1. Toribio Etxebarria.
- 2. Estacionamiento en el lado izquierdo de la calle Isasi, según el sentido de la marcha de los vehículos (números pares) en el tramo comprendido entre la confluencia con Jose Antonio Gisasola y Makazkua.
 - 3. Parking público Errebal plazia (planta -1).
 - 4. Y demás zonas que el Ayuntamiento en Pleno determine.

Artículo 3.º Horarios y fechas en las que regirá la limitación de aparcamiento.

1. Limitación en la calle Toribio Etxebarria:

La limitación regirá los días laborales de lunes a viernes de 7:45-12:00 h. De 12:00 a 7:45 h de la mañana siguiente se peatonalizara toda la calle, debiendo quedar toda la zona desocupada de vehículos, quedando prohibido el estacionamiento en ese tramo horario (12:00 h-7:45 h).

www.gipuzkoa.eus 1 LG.:S.S.1-1958

Larunbat, igande eta jaiegunetan ez da aparkatzen utziko oinezkoen kale bat delako.

2. Aparkaldi mugatua Isasi kaleko zenbaki bikoitien aldean, Jose Antonio Gisasolarekiko eta Makazkuarekiko elkarguneen arteko zatian:

Aparkaldi mugatua lanegunetan izango da, astelehenetik ostiralera, goizeko 9:00etatik 20:00etara eta jaiegun ez diren larunbatetan 9:00etatik 13:00era.

3. Aparkaldi mugatua Errebal Plazia eraikinaren parking publikoan:

Aparkaldi mugatua lanegunetan izango da astelehenetik ostiralera 9:00etatik 20:00etara eta jaiegun ez diren larunbatetan 9:00etatik 13:00era.

- 4. Ordutegi hori Alkatetzaren Ebazpenaz aldatu edo luzatu daiteke (segurtasun arrazoiengatik, obrengatik, interes publikoak hala eskatzen duelako, kultura-ekitaldiak daudelako, kirol-ikus-kizunak...).
 - 4. artikulua. Aparkaldiaren iraupena.
- 1. Toribio Etxebarria kalea: gehienez ere ordu 2ko aparkaldia. Ibilgailuek ezingo dute aparkatu 12:00etatik aurrera, ordu horretatik aurrera oinezkoen eremu baita. 12:00etatik aurrera (astelehenetik ostiralera) kalean ez da ibilgailu bat bera ere egongo eta oinezkoentzako gunetzat hartuko da.
- 2. Isasi kalea (zenbaki bikoitien aldea, Jose Antonio Gisasolarekiko eta Makazkuarekiko elkarguneen arteko zatian): aparkaldi mugatua 2 ordukoa izango da.
- 3. Errebal Plazia eraikinaren parking publikoa: gehienez ere ordu 2ko aparkaldia.
- 4. Erabilera-ordutegi ezberdinak izan arren, kaleak eta Errebal Plazia eraikineko parking publikoa gune bakar batean sartuta egongo dira; ondorioz, kale horietako edozeinetan aparkatzeko txartela ateraz gero, ezingo da ibilgailu berarentzako beste txartel berri bat atera kale horietako batean, aurreneko txartela eskuratu eta 4 ordu igaro arte.
 - 5. artikulua. Aparkatzeko tasak ordaintzea.
- 2. artikuluan zehaztutako leku horretan aparkatzeak tasak sorraraz ditzake. Tasa horiek Udalak dagokion Ordenantza Fiskalean onartuko dituenak izango dira.
 - 6. artikulua. Aparkalekuaren kudeaketa eta kontrola.

Aparkalekuak, aparkatzeko txartel makina bidez edo/eta zaintzaileak ipinita kudeatu eta kontrolatuko dira.

2. artikuluan zehaztutako leku horietan aparkatu nahi duen gidariak, aparkatu baino lehen –edo aparkatu eta berehala–, txartela eskuratu behar du. Txartelak, aparkatzeko hasiera-ordua eta amaiera-ordua jasoko ditu, baita ibilgailuaren matrikula ere. Txartelean jarritako matrikula bat etorriko beharko da ibilgailuarenarekin.

Txartel hori ibilgailuaren haizetakoaren barruko aldean jarriko da, kanpotik ondo ikusteko moduan.

Txartel horiek, makinek edo aparkalekua zaintzen ari direnek emango dituzte.

Aparkatzeko denbora amaitu baino lehen erretiratu behar da ibilgailua.

7. artikulua. Ibilgailu salbuetsiak.

Ondoko ibilgailu hauek ez dute Ordenantza honetan esandakoa bete beharrik, baina beti ere dagokien zerbitzua betetzen ari badira, ez bestela:

- Taxiek, baldin eta gidaria bertan bada.
- Anbulantziek, baldin eta kanpoko aldetik anbulantzia legez identifikatuta badaude eta gidaria bertan bada.

Los sábados, domingos y festivos no se permitirá el estacionamiento al ser una calle peatonal.

2. Limitación en el lado de los números pares de la calle Isasi, entre la confluencia con Jose Antonio Gisasola y Makazkua:

La limitación horaria regirá los días laborales de lunes a viernes de 09:00 a 20:00 horas y los sábados no festivos de 09:00 a 13:00.

3. Limitación Parking público Errebal plazia:

La limitación horaria regirá los días laborales de lunes a viernes de 09:00 a 20:00 horas y los sábados no festivos de 09:00 a 13:00.

4. Por Resolución de Alcaldía podrá modificarse o ampliarse el citado horario por razones de seguridad, obras o interés público, actos culturales, deportivos, etc.

Artículo 4.º Limitación de la duración de aparcamiento.

- 1. Calle Toribio Etxebarria: regirá la limitación de un máximo de 2 horas junto con la imposibilidad de que los vehículos estén estacionados a partir de las 12:00 h, momento en el que se peatonalizará la zona. A partir de las 12:00 h (de lunes a viernes), la zona deberá estar totalmente desocupada de vehículos teniendo la consideración de zona peatonal.
- Calle Isasi (lado números pares entre la confluencia con Jose Antonio Gisasola y Makazkua): regirá la limitación de un máximo de 2 horas.
- 3. Parking público Errebal Plazia: regirá la limitación de un máximo de 2 horas.
- 4. Aun teniendo horarios de uso distintos las calles y el parking público Errebal plazia estarán incluidas en una única zona, esto supondrá que una vez sacado el ticket de estacionamiento en cualquiera de ellas no se podrá volver a sacar un nuevo ticket para el mismo vehículo en cualquiera de las calles hasta que no transcurran 4 horas de impresión del primero.
 - Artículo 5.º Devengo de tasas por aparcamiento.

El aparcamiento en la zona definida en el artículo 2.º podrá devengar tasas. Dichas tasas serán las que apruebe el Ayuntamiento a través de la correspondiente Ordenanza Fiscal.

Artículo 6.º Gestión y control del aparcamiento.

La gestión y control de los aparcamientos se realizará mediante expendedores de tickets de aparcamiento y/o personal de vigilancia.

El conductor que desee aparcar en las zonas delimitadas en el artículo 2.º, deberá de proveerse antes, o inmediatamente después de realizar la operación de aparcamiento, de un ticket de aparcamiento, que identifique la hora de inicio, finalización del mismo y la matrícula. La matrícula del ticket deberá coincidir con la matrícula del vehículo.

Dicho ticket se colocará en la parte interna del parabrisas del vehículo, en lugar totalmente visible desde el exterior.

Los tickets serán expedidos por expendedores automáticos o por el personal de vigilancia.

Antes de que expire el tiempo de ocupación del aparcamiento, deberá proceder a la retirada del vehículo.

Artículo 7.º Vehículos excepcionados.

No estarán sujetos a la presente Ordenanza los siguientes vehículos, siempre y cuando estén prestando el servicio que les es propio:

 Los vehículos de auto-taxi, siempre que el conductor esté presente. EK\CV GAO-I-2022-07444

Las ambulancias, siempre que estén exteriormente identificadas como tales y su conductor esté presente.

I.G.-S.S.1.1058

- Administrazio publikoaren ibilgailu ofizialek, segurtasunera eta hiritarrak babestera zuzendutakoak, baldin eta horretako direla egiaztatzen badute.
 - 8. artikulua. Arau-hausteak.

Hauek dira Ordenantza honetan ezarritakoaren kontrako arau-hausteak:

- a) 2. artikuluan esandako leku horretan aparkatzea txartelik eskuratzeke.
- b) Aparkatzeko txartela ez jartzea 6. artikuluak esandako eran
- c) Aparkatzeko txartela manipulatzea, ez edukitzea edo ez eskuratzea.
- d) Ibilgailuaren matrikula txartelean azaltzen denarekin bat ez etortzea edo bestelako manipulazioren bat egitea txartelean
- e) Aparkaldi mugatuko esparru barruan baimendutako denbora baino denbora gehiagoan aparkatzea.
- g) Toribio Etxebarria kalean aparkatzea oinezkoen kale den denbora-tarte horietan.
 - 9. artikulua. Zehapenak.
- 8. artikuluko f) letran jasotako zehapenak larritzat hartuko dira eta 200 eurorainoko isuna jasoko dute. 8. artikuluan jasotako gainerako kasu guztiak arau-hauste arintzat hartzen dira, 100 eurorainoko isuna jaso dezaketen arau-haustetzat.

Erantzuleak zehazteko orduan, preskripzioetan, prozeduran eta zehapen prozedurako gainerako elementu guztietan, hiri izaerako bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen duen Ordenantzak eta urriaren 30eko 6/2015 legegintzako Errege Dekretuak eta horren erregelamenduzko xedapenek ezarritakoari jarraituko zaio.

10. artikulua. Ibilgailuak ibilgetzea eta erretiratzea.

Ibilgailua ibilgetu eta erretiratu egingo da Trafiko, Ibilgailu Motordunen eta Bide Segurtasunari buruzko legearen testu artikulua onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 104. eta 105. artikuluek jasotzen dituzten kasu horietarikoren bat gertatuz gero. Baita Ordenantza honen 8.f) eta 8.g) artikuluetan jasotako kasu horietarikoren bat gertatuz gero ere.

Dagokion Ordenantza Fiskalean aurreikusten den tasa sorraraziko du ibilgailua erretiratzeko zerbitzua eskaintzeak nahiz ibilgailua udal gordelekuan edukitzeak. Tasa hori ibilgailua erretiratu baino lehen ordainduko da, eta, hala balegokio, alde batera utzi gabe ezar daitezkeen zehapenak.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indargabetuta geratu da Eibarko hirian ibilgailuen aparkamendu-denbora mugatua arautzeko Ordenantza Arauemailearen testua, 2010eko apirilean behin betiko onespena jaso zuena; baita hari harrez geroztik egindako aldaketak ere.

Azken xedapen lehena.

Ordenantza hau behin betiko onespena jaso eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik 15 egunera sartuko da indarrean.

 Los vehículos oficiales de la administración pública destinados a la seguridad y protección ciudadana, siempre que aporten constancia de ello.

Artículo 8.º Infracciones.

Constituirá infracción a lo dispuesto en la presente Ordenanza:

- a) Estacionar en la zona definida en el artículo 2.º sin proveerse de ticket de estacionamiento.
- b) No colocar el ticket de estacionamiento en la forma recogida en el artículo 6.º
- c) La manipulación, la no posesión o la no adquisición del ticket de estacionamiento.
- d) No coincidir la matrícula del vehículo con la que figura en el ticket o sufrir alguna manipulación.
- e) Estacionar en el ámbito del aparcamiento limitado correspondiente por un tiempo superior al autorizado.
- f) El estacionamiento en Toribio Etxebarria cuando tenga consideración de calle peatonal.

Artículo 9.º Sanciones.

Las infracciones recogidas en el artículo 8 letra f) serán consideradas graves y serán sancionadas con una multa de 200 euros. Los demás supuestos recogidos dentro del artículo 8 se consideran como infracciones, leves sancionables con una multa de hasta 100 euros.

En cuanto a la determinación de sujetos responsables, prescripción, procedimiento, y demás elementos del procedimiento sancionador, se estará a lo dispuesto en la Ordenanza Reguladora de los Usos, Tráfico, Circulación y Seguridad en las Vías Públicas de Carácter Urbano, y Real Decreto Legislativo 6/2015, de 30 de octubre, y sus disposiciones reglamentarias.

Artículo 10.º Inmovilización y retirada de vehículos.

Se procederá a la inmovilización y retirada del vehículo cuando se produzca alguno de los supuestos recogidos en los artículos 104 y 105 del Real Decreto Legislativo 6/2015 de 30 de octubre por el que se aprueba el Texto Articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial. Así como cuando se produzcan los supuestos recogidos en el artículo 8.f) y 8.g) de la presente Ordenanza.

La prestación del servicio de retirada del vehículo, así como la estancia del mismo en los depósitos municipales, devengará la tasa prevista en la Ordenanza Fiscal correspondiente, que será satisfecha antes de la retirada del vehículo y sin perjuicio de las sanciones que, en su caso pudieran imponerse.

Disposición derogatoria única.

Queda derogada el texto de la Ordenanza Reguladora del Aparcamiento Limitado en el tiempo de vehículos de la ciudad de Eibar, aprobado definitivamente en abril de 2010. Así como las posteriores modificaciones.

Disposición final primera.

La presente Ordenanza entrará en vigor una vez aprobada definitivamente y transcurridos quince días a partir de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

ww.gipuzkoa.eus 3 LG.:S.S.1-1958